

A MA BIRIÑARI

KANDELEGUNEAN.



A MI RESPETABLE Y QUERIDO AMIGO EL INSIGNE NOVELISTA BASCONGADO

D. FRANCISCO NAVARRO VILLOSLADA.

Mundu onetan penikan bada
 Itsasoan non lureán,
 Kandelacho bat irazekia
 Ikustendet nik aurrean,
 Eta ¡Maria! agertutzen zait
 Argi arren dizdizean
 Erregutuaz Jaungoikoari,
 Amoriozko garrean,
 ¡Zabal dezala konsueloa
 Triste daudenen artean!
 ¡O Ama Ama! Nere aldetik
 Zuri esker ematean,
 Zuri begira, choraturikan,
 Itzik gabe gelditzean,
 Diot doi-doa: ¡Zuregan daude
 Nere bersoak gordean!

ANTONIO ARZÁC.

1886-an.

